

# Gazteek garapen jasangarriarekin duten konpromisoa: 2030 Agendaren aurkako diskurtsoak desmuntatzen

Egilea: Nekane Viota Fernández, UN Etxea  
Laguntzaileak: Marco Ortiz Uriarte, Deustuko Unibertsitateko ikaslea  
Eva Quiroga, UN Etxea


2024ko otsaila



# Gazteek garapen jasangarriarekin duten konpromisoa: 2030 Agendaren aurkako diskurtsoak desmuntatzen

Egilea: Nekane Viota Fernández, UN Etxea  
Laguntzaileak: Marco Ortiz Uriarte, Deustuko Unibertsitateko ikaslea  
Eva Quiroga, UN Etxea

2024ko otsaila



## Argitaratutako zenbakiak

**Erronkak 1.** 'Gure Agenda Bateratua eta kontratu soziala berritzea'. Mariano Aguirre.

**Erronkak 2.** 'Euskadiko belaunaldien arteko harremanen etorkizunari buruzko elkarrizketa eta eztabaida publikoa bilatzea'. Javier Yanguas eta Joseba Zalakain.

**Erronkak 3.** 'Krisi klimatikoa konpontzeko hiru kontratu'. Victor Viñuales. Hitzaurrea: Cristina Monge.

**Erronkak 4.** 'Aro digitalean, erantzuna eboluzioa da, eta galdera, iraultza'. Alex Rayón.

Hemen daude eskura: [www.euskadi.eus/erronkak-bilduma](http://www.euskadi.eus/erronkak-bilduma)

# Erronkak argitalpen bildumaren aurkezpena

Argitalpen bilduma honen helburua 2030 Agendak munduaren historiaren une zehatz honetan planteatzen dizkigun erronka handiak hobeto ulertzeko eta horiei aurre egiteko argudioak eskaintzea da. Azken batean, egungo bidegurutzearen erdian, hausnarketa partekaturako gune bat sortzea. *Erronkak* bildumaren xede hori argitalpen bakoitzaren ezaugarri izango diren irizpideen arabera garatzen da.

Lehenik eta behin, eta esan bezala, zenbaki bakoitzean jorrotzen den gaiak Garapen Jasangarrirako Helburuei lotutako erronka handienetako bati heltzen dio. Gai bakoitzaren trataera horrek bi irizpide bete beharko ditu: horien esanahia eta garrantzia ulertzen baliatzea, eta eskatzen dituen eraldaketa praktikoak aditzen laguntzea.

Bilduma honetan argitaratzen diren idazkien estiloa honako hau da: gizarte osoarentzat helburu garrantzitsu eta/edo premiazko gisa duten garrantziagatik, konplexuak izan daitezkeen gaiak pedagogikoki azaltzea eta "deskonposatzea". Helburu horiek ezagutzea eta ulertzea merezi dute, herritarren inplikazioa izan dezaten, eta gizarte-kontratu baliagarri baten parte izan daitezkeen.

Dibulgazio-helburu beraren ildotik, *Erronkak* argitalpen-bilduman erreproduzituko diren dokumentuen luzapena gehienez 11.000 hitzetara mugatuko da. Hau da, lehen zenbaki hau bezala, gehienez 20 orrialdeko testu-formatu honetan.

Bilduma hau zinegotzien, alkateen, erakunde guztietako kargu publikoen, administrazio guztietako teknikarien, edozein hezkuntza-eremutako irakasleen edo gizarte zibileko erakundeetako kide diren pertsonen jarduerarako baliagarria izateko pentsatuta dago.

Azken finean, argitalpen-bilduma honek informazio- eta dokumentazio-iturri izan nahi du 2030 Agendaren esparruaren inguruko guztia gehiago eta hobeto ezagutu nahi duen edozein pertsonarentzat edo erakunderentzat.

Bildumaren bosgarren zenbaki honek 2030 Agenda zer den eta zer dakarren jakiteak planteatzen dituen erronka batzuei heltzen die, bereziki gazteentzat. Nekane Viota Fernández egileak "Gazteek garapen jasangarriarekin duten konpromisoa: 2030 Agendaren aurkako diskurtsoak desmuntatzen" izenburua jarri dio lan honi. Desinformazioak gizarte-kohesioan, bizikidetzan, baketsuan eta gizarte bidezkoago eta iraunkorrago baterantz aurrera egitean duen eraginaren azterketa xehatua eskaintzen du.

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia

2024ko otsaila

**Oharra:** Argitalpen bakoitzean azaltzen diren analisiek, gogoetek, argudioek edo proposamenek ez dute nahitaez Eusko Jaurkitzaren ikuspuntua adierazten, egileena bakarrik baizik. Nolanahi ere, alde aurretik adierazi behar da horiek guztiak gogoeta-ariketa zintzoak direla, eta eztabaida eta deliberazio partekaturako oinarria direla, ekintza itunduko espazioak bilatzean.



# 1. Sarrera

Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ia erdiak (% 48,7k) dio Garapen Jasangarrirako Helburuen 2030 Agenda ezagutzen duela, eta haren logoak ikustean, % 77,5ek aitortu du nonbait ikusi dituela. 2030 Agendari laguntzeko eguneroko bizitzan hartu beharko lituzketen aldaketei buruzko konpromiso zehatzei buruz gazteei galdetzean, gehien errepikatzen dena gehiago informatzea da, orain duten informazioa nahikoa ez dela aditzera emanez.<sup>1</sup>

Gaur egun, gai horri buruzko “informazio” eta iritzi ugari daude hedabide guztietan. Hala ere, informazio hori guztia ez da egiazkoa, eta errealitatea nahita desitxuratzen du, gizartea zatitzen eta polarizatzen lagunduz.

Dokumentu honen helburua da 2030 Agendaren inguruan dabilzan euskal gazteen arteko desinformazioa eta “fake news”ak geldiaraztea eta iraultzea. Gure asmoa da euskal gazteek 2030 Agendaren aurkako argudioak banan-banan detektatu eta desmuntatu ahal izatea, modu erraz baina zorrotzean, 2030 Agendaren aurkako argudio bakoitza eraisteko iturri fidagarrien informazio zehatza, argia eta egiaztagarria eskainiz.

Horretarako, lehenik eta behin, oinarritzko kontzeptu batzuk ikusiko ditugu, desinformazioaren estrategietan ezaugarri komunak sartuko ditugu, eta azalduko dugu zergatik diren arriskutsuak eta nola hauteman daitezkeen; bigarrenik, 2030 Agendaren funtzionamendua eta izaera arrazoituz eta ezagutuz, haren aurkako diskurtsorik ohikoenak aurkeztuko eta desmuntatuko ditugu, aurreiritzi ideologikoekin kontserbadoreekin eta mesfidatiekin bat datozenak; eta, azkenik, narratiba horiei aurre egiteko eta indarrik gabe uzteko estrategia batzuk eskainiko ditugu. Azken batean, dokumentu honek mesfidantzazko diskurtso horiek aurkeztu eta desegin nahi ditu.

---

1 Gazteen Euskal Behatokia. “Gazteak eta Garapen Jasangarrirako Helburuen 2030 Agenda. Euskadiko gazteen ezagutza eta iritziak”.





## 2. Zenbait gai argituz

### Baina... zer da 2030 Agenda?

Nazio Batuek diseinatu eta adostutako ekintza-plan globala da, 2030erako parte-hartze sozial zabalarekin. Bere izen osoa "Gure mundua eraldatzea: Garapen Jasangarriko 2030 Agenda" da, eta Nazio Batuetako 193 estatu kideek onartu zuten 2015eko irailean. 2030 Agendaren erdigunean Garapen Jasangarriko 17 Helburuak (GJH) daude. Helburu horiek ekintzarako dei unibertseala dira, pobrezia amaiera emateko, planeta babesteko eta pertsona guztiak bakea eta oparotasuna izan dezaten bermatzeko. GJHek gai ugari jorratzen dituzte, pobrezia desagerraraztetik hasi eta ekintza klimatikora arte.



Iturria: UPV/EHUko Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra

Hori ezartzea gobernuen, gizarte zibilaren, sektore pribatuaren eta beste eragile garrantzitsu bartzuen artean partekatutako zeregina da. Herrialde bakoitzak GJHak bere errealitate nazionalera egokitzea eta 2030. urtea baino lehen lortzeko planak ezartzea espero da. Horretarako, helburu bakoitzak jomuga espezifikoak eta herrialdeek helburu horiek lortzeko egiten duten aurrerapena neurtzeko erabiltzen dituzten adierazleen multzoa ditu.

**“Orain jarduten ez badugu, 2030 Agenda izan zitekeen munduaren epitafioa izango da”**

António Guterres, Nazio Batuetako idazkari nagusia

Agenda giltzarria da Euskadiren eta planetako gizarte guztien etorkizunerako, mundu osoko alderdi ekonomikoen, sozialen eta ingurumenekoen arteko lotura onartzen duen esparrua eskaintzen duelako. Modu eraginkorrean ezartzeak eragin nabarmena izan dezake pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko eta etorkizuneko belaunaldientzat planeta zaintzeko. Aitzitik, geldotasunak ondorio larriak izan ditzake pertsonen ongizatean eta planetan.

## Gehiago jakiteko



Minutu batzuk dituzu 2030 Agenda zer den eta gure lurraldean zer den jakiteko? Hona hemen iraupen desberdineko dokumentu batzuk:

<https://www.euskadi.eus/zerda2030agenda>

Hala ere, 2030 Agendari buruzko desinformazio-estrategiak areagotzeak GJHen izaera eta helburua desitxuratzen ditu. Diskurtso horiek kaltegarriak izan daitezke, ekimen globalekiko mesfidantza eta etsaitasuna sustatzen baitute. Horrek guztiak gizartea polarizatzen laguntzen du.

## Zer da polarizazio soziala?

Gizartean dagoen polarizazioa edo banaketa gero eta handiagoa, eztabaida politikoa inguratzen duen ingurune komuna bihurtu da. Fenomeno hori ez da testuinguru bakar batera mugatzen; aitzitik, nazio demokratikoetan ikusten da, maila globalean. Adu batzuen ustez, joera hori ordezkari-sistemaren krisiaren adierazle izan daiteke, eta beste batzuen arabera, berriz, politikaren eta herritarren arteko urruntasunak eragiten du.

Ezagutu beharko zenituzkeen datu batzuk:

- Estatu espainiarrean, polarizazio ideologikoa % 40 hazi da azken 20 urteetan.<sup>1</sup>
- Hauteskunde-garaian, hauteskunde-kanpainak % 30 igo dute polarizazioa, hauteskunderik gabeko aldiarekin alderatuta.<sup>2</sup>
- Bizitza politikoaren polarizazioa herritarrek ez ezik politikariek ere hautematen duten fenomeno da.<sup>3</sup>
- Demokraziaren kalitatea oso hondatuta dago, jarduera politikoa eta herritarrak gero eta urrugo daudelako.<sup>4</sup>
- Sare sozialak, iritzi politiko bat osatzerakoan eragina dutenak, polarizazioa bermatzen duten faktoreak direla dirudi.<sup>5</sup>

## Hausnarketa

Polarizazioa gizartean sortzen da eta gero eremu publikoan errepikatzen da? Edo jarduera politikoak elikatzen du komunikabide eta sare sozial batzuen laguntzarekin?

Fenomeno horrek zatiketa, haserrea eta liskarra sortzen ditu gizartean. Polarizazioarekiko eguneroko harreman-efektuak erradikalizatu egiten du pertsonen pentsamendua, eta kontrako iritziarekiko gaitzespena sortzen du.

Nola antzeman? Gizartean polarizazioa eta zatiketa eragiten duten diskurtsoak identifikatzeak berekin dakar zenbait zeinu ezagutzea, hala nola jarrerak erradikalizatzea, ñabardurak kentzea, mezuak gehiegi sinplifikatzea, anekdotan oinarritutako diskurtsoetan, eta ez arauan, edo konplexutasuna baztertzea. Zeinu horiek, muturrera eramaten direnean, gezurra, manipulazioa eta deslegitimazioa bezalako praktikak eragin ditzakete.

1 Miller, L. (2023). Polarizados: La política que nos divide. Deusto Argitaletxea.

2 Hernández E., y Rico, G. (2021). Affective polarization and de salience of elections. Electoral Studies, 69. 102203.

3 LUPAK (2023) Jarduera politikoari buruzko ikerketa.

4 LUPAK (2023). Jarduera politikoari buruzko ikerketa.

5 LUPAK (2023). Jarduera politikoari buruzko ikerketa.

## Gehiago jakiteko

The Hidden Drug +Democraciak eta LLYC-k egindako ikerketa da, eta polarizazioa droga ezkutua dela dio, eta, beraz, mendekotasuna sortzen duela, eta ondorioak sortzen dituela epe laburrean eta luzean maila fisikoan eta indibidualean, eta gizarte gisa ere eragiten digula.

<https://thehiddendrug.llorenteycuenca.com/>



## Eta... zer paper jokatzen dute gazteek honetan guztian?

Belaunaldi gazteenak eta etorkizunekoak izango dira aurre egin behar diogun “polikrisiaren” kalte-tuenak. Krisi ugari daude, eta, gainera, elkarren mendekoak dira, eta ondorioak are larriagoak dira datozen belaunaldientzat.

Gazteen parte-hartze aktiboa funtsezkoa da 2030 Agendaren helburuak lortzeko, giza eskubideak sustatzeko eta garapen jasangarria lortzeko. Gazteak funtsezko aldaketa-eragileak dira, hainbat ikuspegi ematen dituzte, gai garrantzitsuekin konprometitzen dira, berrikuntza teknologikoa sustatzen dute eta gure gizartearen oraina eta etorkizuna ordezkatzeko. Haien parte-hartze aktiboa eta sortzailea funtsezkoa da erronka globalei aurre egiteko, inklusioa bermatzeko eta guztiontzat bidezkoagoa eta iraunkorragoa den mundu baterantz aurrera egiteko.

Nazio Batuetako idazkari nagusiak gazteen parte-hartzeari buruzko politikei buruz egindako txostenaren arabera, azken urteotan gazteak gizarte-aldaketaren bultzatzaile bihurtu dira gizarte-mobilizazioaren bidez, klimarekin lotutako neurriak har daitezen presionatuz, arraza-justizia aldarrikatuz, genero-berdintasuna sustatuz eta pertsona guztiei duintasuna eskatuz.

## Informazio gehiago

Gure Agenda Bateratuaren politiken 3. txostena. Gazteek parte-hartze esanguratsua izatea erabakiak hartzeko eta politikak egiteko prozesuetan.

<https://www.un.org/sites/un2.un.org/files/our-common-agenda-policy-brief-youth-engagement-es.pdf>



### 3. Desinformazioa, bere estrategiak eta ondorioak

NBEk argitu du desinformazioa informazio zehaztugabea izateaz gain, engainatzea duela helburu, eta aurreiritzi larriak eragiteko asmoz zabaltzen dela. Desinformazioa estatuek edo estatukoak ez diren agenteek zabal dezakete. Giza eskubideen aukera zabal bati eragin diezaioke, politika publikoei emandako erantzunak ahulduz edo larrialdietan edo gatazketan tentsioak areagotuz.

Desinformazioa garrantzi handiko gaia da, hainbat alderditan inplikazio handiak dituelako, hala nola hezkuntzan eta osasun publikoan, baita banakako erabakiak hartzean ere. Desinformazioak erabakiak hartzean eragiteko, konfiantza publikoa ahultzeko, demokrazia mehatxatzeko, osasun publikoa arriskuan jartzeko eta gizartean zatiketa sortzeko ahalmena du. Arazo horri heltzea funtsezkoa da informazioaren osotasuna babesteko eta erabakiak informatuta eta gertakarietan oinarrituta har daitezen sustatzeko.

Desinformazioaren hainbat estrategia aurki ditzakegu, hala nola:

- **Funtsik gabeko konspirazio-teoriak zabaltzea:** Askotan konspirazio-teoriak zabaltzen dira ekimen politikoak edo gizarte-taldeak gutxiesteko. Teoria horiek funtsik gabekoak izaten dira, eta ez dute ebidentzia egiaztagaririk.
- **Muturreko narratibak babesteko datuak manipulatzeko:** Narratiba espezifiko bat babesteko datuak modu partzalean hautatzea eta aurkeztea taktika arrunta da. Informazio garrantzitsua ez ematea edo gertakariak desitxuratzea ekar dezake, muturreko ikuspuntuak babesteko.
- **Sare sozialak erabiltzea informazio engainagarria zabaltzeko:** Sare sozialak desinformazioa azkar eta eskala handian zabaltzeko baliatu dira. Albiste faltsuak eta irudien manipulazioa tresna arruntak dira testuinguru honetan.
- **Komunikabide tradizionalen deslegitimazioa:** Albiste-iturri independenteen egiazkotasuna zalantzan jartzean, talde batzuek informazio objektiboarekiko konfiantza ahultzea eta narratiba alternatiboen onarpena sustatzea bilatzen dute.

Horri “fake news” direlakoak gehitu behar zaizkio. Albiste faltsuen bidez laguntza lortzeko tresna edo bitarteko gisa definitzen dira, iritzi publikoan eraginez eta segurtasunik eza, susmoak, eze-gonkortasuna, mugimenduak, erakundeak eta abar babesteko edo gutxiesteko.

Desinformazioaren erabilerak eta “fake news”-ek ondorio larriak eragiten dituzte. Zehatzago, hauek dira 2030 Agendaren aurkako diskurtsoen ondorio nagusiak:

- **Banaketa eta polarizazioa sustatzea:** gizarte-banaketak areagotzen dira pertsona talde jakin batzuekiko intolerantzia, aurreiritzia eta diskriminazioa sustatuz, arrazoi etniko, erlijioso, genero edo bestelakoengatik. Horrek biztanleriaren sektore desberdinen arteko tentsioak areagotzen lagun dezake.
- **Diskriminazio- eta bazterkeria-arriskua:** 2030 Agendaren aurkako diskurtsoek, bereziki politika inklusiboan edo genero-berdintasunaren aurka daudenek, jarrera diskriminatzaileak eta baztertzailak susta ditzakete komunitate kalteberetik. Horrek zenbait talde marjinauak edo oinarritzko aukeretatik eta eskubideetatik baztertuak izatea ekar lezake.
- **Eztabaida publikoa eta erabakiak hartzea hondatzea:** Gorroto-diskurtsoek edo 2030 Agendaren kontrakoek eztabaida publikoa hondatzen lagun dezakete, informazio faltsua edo partziala sustatzen baitute, eta arreta jorratu beharreko benetako arazoetatik desbideratzen dute. Horrek eragina izan dezake gizarteak erabaki informatuak eta ebidentzian oinarritutakoak hartzeko duen gaitasunean.

- **Errealitatearen pertzepzioan eta intolerantziaren legitimazioan duen eragina:** Gorroto-diskurtsoek pertsonen errealitatearen pertzepzioa molda dezakete, gizarteak talde edo gai jakin batzuk ikusten dituen moduan eragina izan dezaketen ideia eta jarrera intoleranteak legitimatuz.
- **Giza eskubideen gutxiespena:** 2030 Agendari eraso egiten dioten eta gorrotoa sustatzen duten diskurtsoek sarritan arbuiatu egiten dituzte berdintasuna, duintasuna eta zenbait gizarte-talderen eskubideak. Horren barruan sar daiteke oinarrizko eskubideak ukatzea, hala nola genero-berdintasuna, LGBT+ eskubideak eta migratzaileen eskubideak, besteak beste, giza eskubide unibertsalen babesa eta sustapena ahulduz.
- **Lankidetzaren oztopatzea:** 2030 Agendaren aurka dauden diskurtsoak oztopo dira gizarte bidezkoago eta iraunkorrago baterantz aurrera egiteko, zaildu egiten baitute elkarlana eta baterako ekintza konponbide eraginkorrak lortzeko.
- **Nazio Batuen desakreditazioa:** Legitimitatea funtsezkoa da erakundeak eginkizun bat bete dezan. NBERen balizko eta etorkizuneko zilegitasun faltak eragin nabarmena izan dezake bere misioa betetzeko eta arazo globalei aurre egiteko duen gaitasunean.

## Ikus dezagun orain adibide bat

Ikusi bideo hau: **Solo queda VOX frente a la Agenda 2030**

<https://www.youtube.com/watch?v=RybzE2vAyEs>

Identifika ditzakezu desinformazioa erabiltzen duten estrategiak? Zer nahi dute horrelako kanpainak? Zure ustez, zer hedabideren bidez zabaltzen dira horrelako mezuak?



## 4. Ez zaitzatela engainatu

Zoritxarrez, 2030 Agendaren aurkako diskurtsoek gero eta gehiago onartzen dute informazio guxtiagoko biztanleria batek eta populismoak eramango dituenak. Diskurtso horiek identifikatzeko eta desegiteko gai bagara, estremismoen aurrerapena geldiarazteko gai izango gara, elkarrizketa-espazio tolerantetik eta fidagarriak garatzea erraztuz. Jarraian, banan-banan desmuntatzeko 2030 Agendaren aurkako "argudio" nagusiak aurkeztuko ditugu.

### 2030 Agendak guztiak pobre ikusi nahi gaitu

*"2030 Agendak hondamendira eramango gaitu eta pobre guztiak ikusi nahi gaitu. Ezartzeko kostua handiegia izango da eta zergadunek ordaindu beharko dute. Gainera, aberastasunaren birbanaketa horrek alfer eta lauso asko sortuko ditu, eta ahalegin handiz lortu dudana baliatuko dira."*

Baieztape hori faltsua da. 2030 Agendak pobreziari, desberdintasunei eta bestelako arazo globalei heldu nahi die, pertsona guztiei eta planetari mesede egingo dien garapen jasangarria sustatuz, eta ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-alderdien arteko interdependentzia aitortuz. Era berean, desberdintasunak murrizteak gizartearen maila baxuenetan dauden gizabanakoei edo taldeei mesede egiteaz gain, gizarte osoa indartzen du, egonkortasuna, osasuna, ekonomia eta gizarte-kohesioa hobetzen baititu.

### 2030 Agendak immigrazio masiboa bultzatzen du

*"2030 Agendak Europako mugak irekitzea eta etorkinen inbasioa jasotzea ekarriko du, eta horietako asko arriskutsuak dira. Laguntzengatik eta lanpostuak kentzeagatik etorriko dira batez ere. Gainera, jaiotza-tasa handiagoarekin biztanleria zuri gehiena ordezkatzeko dute azkenean."*

Teoria hau guztiz faltsua da. Hasteko, gogora dezagun migratzeko eskubidea nazioartean aitortutako giza eskubideen parte dela. Gainera, immigrazioa garapen jasangarria sustatzen duen eragile indartsua da, eta migratzaileei zein jasotzen dituzten gizartei mesede egiten die (Euskadiko immigrazioak kultura eta ekonomia aberasten ditu, gizartea indartzen du, garapena bultzatzen du eta zahartzeari eta defizit demografikoari aurre egiten laguntzen du, kultura-aniztasuna sustatuz). Immigrazioaren eta kriminalitatearen arteko harremana mito bat da; ikerketek erakusten dute ez dagoela zuzeneko korrelaziorik immigrazioaren eta kriminalitatearen artean.

2030 Agendak onartzen du garrantzitsua dela immigrazioa ikuspegi integral baten zati gisa lantzea, garapen iraunkor eta bidezkoa lortzeko maila globalean. Ez du migrazioari buruzko politika espezifikoarik agintzen, baina garapen integral eta iraunkorraren alde egiten du, migrazioa modu ordenatuan, seguruan eta erregularrean kudeatzearen garrantzia aitortzen duena, migratzaileen giza eskubideak errespetatuz eta migrazioak garapen sozial eta ekonomikoari ekar diezazkiokeen onurak aprobetxatuz.

### 2030 Agendak bere genero-ideologia inposatu nahi du

*"Gizonak eta emakumeak bakarrik daude, osagarriak dira eta rol desberdinak jokatzen dituzte gizartean. Rol horiek gizonak eta emakumeak bereizten dituzten ezaugarri biologiko, fisiko, psikologiko eta neuronaletan dute jatorria. Beren genero-ideologia inposatzean, identitate-ezaugarriak deseraiki nahi dituzte."*

Informazio hau faltsua da. Argudio horiek genero-berdintasunaren eta sexu-aniztasunaren inguruko pertzepzio okerretan, desinformazioan eta aurreiritzietan oinarritzen dira. "Genero-ideologia" kontzeptua kontzeptu-erakuntza bat da, askotan gaizki interpretatzen dena eta termino gutxiesgarri gisa erabiltzen dena genero-berdintasuna eta -aniztasuna sustatzeko ahaleginak gutxiesteko. Interpretazio oker horren oinarria da agendak genero-roletan eta -identitateetan aldaketak sustatuko dituen beldurra, sektore kontserbadoreen onartzen ez dituztenak. Eskuin muturrak askotan erabiltzen ditu ideia horiek berdintasuna, inklusioa eta giza eskubideak sustatzeko ahaleginei aurre egiteko.

## 2030 Agenda balio tradizional eta erlijiosoen aurka doa

*“Aniztasuna eta LGBT+ eskubideak sustatzeak eragina izango du gure gizartea historikoki sostengatu duten balio tradizional eta erlijiosoetan”.*

Baieztapen hori faltsua da. 2030 Agendan aniztasuna eta LGBT+ eskubideak sustatzearen helburua ez da balio tradizionalak edo erlijiosoak ahultzea edo mehatxatzea, eta ez du eragozten pertsonen beren balio tradizionalei edo erlijioei eustea. 2030 Agendak sinesmen eta praktika erlijiosoen askatasuna errespetatu eta babesten du, betiere beste pertsona batzuen oinarritzko eskubideak urratzen ez badituzte; hau da, gizarte inklusiboa eta errespetuzkoa sustatzen du, gizabanako guztiak berdintasunez eta duintasunez tratatuko dituen.

## Agenda honek gure haurrak doktrinatu nahi ditu

*“2030 Agendak, hezkuntzaren bidez, arbuizatzen ditugun zenbait balio edo ikuspegi inposatu nahi ditu, bereziki genero-ideologia, sekularismoa eta historiaren ikuspegi lerratua bezalako gaietan, doktrinamendu ideologiko baten parte dena. Ikasgeletan gai pribatuak eta intimoak jorratzea nahi dute, hala nola sexu-hezkuntza, haurrei sexu-askatasuna eta rol-askatasuna irakatsiz, non haiek ‘nor izan nahi duten aukeratu’ ahal izango duten eta sexu-aukerak eta -esperientziak gaindituko dituzten”.*

Baieztapen hori faltsua da. Garrantzitsua da kontuan hartzea 2030 Agendaren helburu nagusia dela hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa sustatzea, eta bizitza osoan ikasteko aukerak sustatzea guztiontzat (4. GJH), kultura-aniztasuna eta tokiko testuingurua errespetatuz. Zehazki, kalitatezko hezkuntza unibertsalean sartzearen alde egiten du, hezkuntzarako sarbidean desberdintasunak murriztearen alde, ikasleak etorkizuneko erronka eta aukera garrantzitsuetarako prestatzeko trebetasunak eskuratzea sustatzen du (trebetasun sozioemozionalak, digitalak eta pentsamendu kritikokoak barne), irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren kalitatea hobetzea bilatzen du, eta adin guztietarako etengabeko hezkuntzako eta lanbide-heziketako aukerak sustatzen ditu. Sexu-hezkuntza integrala ere hezkuntzaren funtsezko alderdi gisa hartzen du; izan ere, sexu-hezkuntza hutsala edo eskasa izateak ez die erantzuten haurren eta gazteen premiei eta eskubideei, eta, gainera, arrisku larriak eragiten dizkie haien osasunerako.

## Gure adierazpen askatasuna mugatu nahi dute

*“Gaur egun, gaitzetsiak izateko beldurrik gabe ere ezin dugu gure iritzia publikoki adierazi. Horregatik, sare sozialen anonimotasuna aprobetxatzen dut.”*

Baieztapen hori faltsua da. Nazioartean onartutako giza eskubide gisa, 2030 Agendak prentsa- eta adierazpen-askatasuna errespetatzen du, eta demokrazia eta eztabaida publikorako funtsezkotzat hartzen ditu. Garrantzitsua da gorroto-diskurtsoetatik bereiztea. Diskurtso horiek gizabanakoen edo taldeen aurkako diskriminazioa, etsaitasuna edo indarkeria sustatzen, bultzatzen, justifikatzen edo legitimatzen duten adierazpenei egiten diete erreferentzia, arraza, erlijioa, etnia, generoa, sexu-orientazioa eta antzeko ezaugarrietan oinarrituta. Diskurtso horiek kaltegarriak dira, eta tentsio sozialak, gatazkak eta indarkeria fisikoa eragin edo areagotu ditzakete. Sare sozialek eremu egokia eman dute gorroto-diskurtsoak zabaltzeko. Haien irismen masiboak eta hedapen-abiadurak mezu kaltegarrien hedapen azkarra ahalbidetzen dute, askotan anonimotasunaren pean.



## **2030 Agendak familiak suntsitu nahi ditu**

*“2030 Agendak ‘familia naturala’ erasotzen du, sexu bereko bikoteak buru dituzten familiak bezala. Horrek balio tradizionalak eta familiaren ikuskera ahultzen ditu, eta mehatxu argia da familiako gizon eta emakumeen rol tradizionalentzat. Gainera, sexu-hezkuntzaren bidez, gazteak ‘doktrinatu’ egiten dituzte eta familia-balio tradizionaletatik desbideratzen dituzte.”*

Baieztapen hori faltsua da. 2030 Agendak genero-berdintasunaren eta genero-estereotipoak eta sexu-aniztasuna ezabatzearen aldeko apustu sendoa egiten du. Ez ditu familia tradizionalak suntsitu nahi, baina familia-ikuspegi zabalagoa du, eta ez eredu heteronormatibo eta patriarkaletan oinarrituta soilik. Bestalde, 2030 Agendan sexu-hezkuntzak pertsonak ahalduntzea, informazio zehatza ematea eta sexu- eta ugalketa-osasunarekin lotutako arazoak prebenitzea bilatzen du, baita genero-berdintasuna eta aniztasunarekiko errespetua sustatzea ere.

## **Ingurumen-murrizketek garapen ekonomikoa oztopatuko dute**

*“Kobazuloetan bezala bizitzea nahi dute, eta gure egungo etxeetako teknologiei eta erosotasunari uko egitea, ingurumena babesteko. Gainera, enpresa askok itxi egin beharko dute eta jendeak bere lanpostuak galduko ditu.”*

Baieztapen hori faltsua da. 2030 Agendak gizateriaren eta naturaren arteko elkarrekiko mendekotasun estua aitortzen du, eta ingurumena babestearen eta gordetzearen garrantzia nabarmentzen du, egungo eta etorkizuneko belaunaldiari mesede egingo dien garapen jasangarria bermatzeko. GJHen barruan, hainbat helburu eta jomuga ingurumenaren babesari ekitera bideratuta daude espezifikoki, 13. helburua (Klimaren aldeko ekintza) eta lotutako beste helburu batzuk barne, hala nola 14. helburua (Itsaspeko bizitza) eta 15. helburua (Lehorreko ekosistemetak bizitza). Jasangarritasunerako inbertsioek eta ekonomia berdeagorako trantsizioak aukera ekonomiko berriak eta epe luzerako onurak sor ditzakete, hala nola sektore iraunkorretan enpleguak sortzea, berrikuntza teknologikoa eta klima-aldaketari eta ingurumen-degradazioari lotutako arriskuak murriztea, eta horrek, aldi berean, hazkunde ekonomiko jasangarria bultzatzea.

## **Klima-aldaketa kontu bat da**

*“Klima-aldaketa gezurra da gu manipulatzeko, politika da dena. Haragia eta esnea kontsumitzea debekatu nahi digute, eta zure auzoan mugitzea besterik ez. Ez da errealia, klima-gorabeherak naturalak dira, eta ez dago tenperatura globala nabarmen igo dela frogatzen duen ebidentzia nahikorik. Gainera, zer axola du beroagoa izango bada? Ez dago zertan kezkatu.”*

Baieztapen hori faltsua da. Giza jarduerak, hala nola erregai fosilen erreketak, deforestazioa eta berotegi-efektuko gasen beste isurketa batzuk, klima-aldaketaren arrazoi nagusiak direla, ebidentzia eta adostasun zientifikoa ukatzen dutenek arriskuan jartzen gaituzte. 2030 Agendak onartzen du klima-aldaketa dela garapen jasangarriarako arronkarik handienetako bat, eta fenomeno horren aurkako borroka eremu guztietan integratzea bilatzen du, gobernu-politiketarik hasi eta ekintza indibidual eta komunitarioetaraino. 2030 Agendak klima-aldaketari eta haren eraginei aurre egiteko neurri zehatzak ezartzen ditu. 13. GJHak “Klimaren aldeko ekintza” du ardatz, eta klima-aldaketari eta horrek planetan, giza komunitateetan eta, oro har, bizitzan dituen ondorio suntsitzaileei aurre egiteko premia aitortzen du. Gainera, Parisko Akordioan ezarritako konpromisoak betetzearen garrantzia azpimarratzen da. Akordio horren helburua da tenperatura globalaren igoera industriaurreko mailen gainetik 2°C baino gutxiagora mugatzea.

## **Ezin gara komunitate zientifikoaz fidatu**

*“Lurra laua da eta txertoak arriskutsuak dira. Ezin da komunitate zientifikoan fidatu, joera politikoez edo ekonomikoez ondorio zientifikoetan eragiten baitute.”*

Baieztapen hori faltsua da. Zientziak berrikuntza eta aurrerapena bultzatzen ditu gizarteko arlo guztietan, eta oinarri sendoa ematen du, halaber, osasuna, segurtasuna, hezkuntza eta antzeko



gaietan erabakiak hartzeko. Aurkikuntza zientifikoen baliozkotasuna arrazoirik gabe zalantzan jartzen edo mesfidatzen denean, erabaki okerrak hartzeko arriskua dago, eta horrek ondorio kaltegarriak izan ditzake gizartearentzat eta planetarentzat. 2030 Agendak komunitate zientifikoaren garrantzia nabarmentzen du, baita ezagutza sortzeko, ikertzeko eta erronka globalei aurre egiteko irtenbideak ezartzeko lankidetzaren garrantzia ere. Onartzen du datu zientifiko zehatzak, ebidentzia sendoa eta zientzian oinarritutako analisia behar direla politikak formulatzeko, erabaki informatuak hartzeko eta GJHak lortzeko estrategia eraginkorrak ezartzeko.

## Nortasun kulturalaren/nazionalaren galera

*“2030 Agendaren konpromisoek, migrazioari, berdintasunari eta kultura-aniztasunari dagokienez, gure kultura-nortasuna, gizarte-kohesioa eta segurtasuna mehatxatzen dituzte.”*

Hau faltsua da. Kultura eta aniztasuna 2030 Agendaren berezko balioak dira. 2030eko konpromisoen helburua ez da kultura-nortasuna ezabatzea edo kaltetzea, kultura-aniztasuna eta inklusioa sustatzea baizik. Tokiko tradizioak errespetatzea eta zaintzea ikuspegi horren parte da, eta kultura-aniztasunak gizartearen duela aitortzen da. Emakumeek tradizio kulturaletan parte hartzeak ez du esan nahi tradizio horiek ezabatzen direnik, baizik eta genero-inklusioa eta -ekitate handiagorantz egiten dutela. 2030 Agendaren konpromisoen helburua ez da sustraitutako kultura-tradizioak desagerraraztea, baizik eta kultura-ondarearen babesa sustatzea, pertsona guztiekiko berdintasuna eta errespetu-balioetara egokituz. Era berean, esan du kultura-aniztasuna ez dela mehatxu bat, elkarren aberastasunerako eta bizikidetzak baketsurako aukera bat baizik.

## 2030 Agendak subiranotasuna galtzea dakar

*“2030 Agendak nazioarteko erakundeak herrialde edo eskualde bateko barne-arazoetan sartzea dakar, eta horrek haren nortasuna eta subiranotasuna mehatxatzen ditu. Agenda hau inposatu nahi digute munduko gobernu bakar eta bateratu baten bidez, gure gobernuaren autonomia mugatuz erabaki politikoak eta ekonomikoak hartzerakoan.”*

Hau guztiz faltsua da. 2030 Agenda 2015ean munduko liderren arteko adostasun baten emaitza da. GJH bakoitza borondatezko konpromisoa da, inoiz ez derrigorrezkoa, herrialde bakoitzak onartua. Ez du estatuen subiranotasuna higatu nahi; aitzitik, nazioarteko lankidetzak eta baterako lana sustatzen ditu, erronka komunei aurre egiteko. Herrialdeen autonomia errespetatzen du garapen-politika eta -estrategia propioak ezartzeko, eta lankidetzak sustatzen duen ekintza-esparrua eskaintzen du, betebeharrak loteslerik ezarri gabe.

## Ikus dezagun orain adibide bat

Ikusi bideo hau: **Lo que se oculta tras la Agenda 2030.**

<https://www.youtube.com/watch?v=YFRtZZn9Qy0>

Zure ustez, aurkeztutako kritikek nola eragin dezakete 2030 Agendari buruzko pertzepzio publikoan? Zer garrantzi du 2030 Agenda eta haren helburuak behar bezala ulertzeak gizartearentzat oro har? Zure ustez, nola hel dakieke 2030 Agenda kritikatzeko dutenek kontsentsu edo ulermen handiagoa lortzeko planteatutako kezkei?



## 5. Jarduteko ordua

Desinformazioaren estrategiak ezagutzen dituzunez eta 2030 Agendaren aurkako narratiba nagusiak eta horien ondorio arriskutsuak desmuntatu ditugunez, ikusiko dugu zer egin dezakegun horri guztiari aurre egiteko. Ikus dezagun hezkuntzak eta informazioak berebiziko garrantzia dutela desinformazioa, teoria konspiratiboak eta albiste faltsuak desmuntatzeko eta borrokatzeko.

Desinformazioaren arazoa erronka handia da, eta hainbat frontetatik egin behar zaio aurre. Hemen duzu DEKALOGO bat zuk egin dezakezun guztiarekin:

1. **Ikasi desinformazioa identifikatzen:** ikasi desinformazio-seinaleak identifikatzen, hala nola titular sentsazionalistak, orokortzeak eta aurreiritziak, iturri fidagarriak eza edo gutxi egiaztatutako informazioa.
2. **Egiaztatu iturriak:** informazio susmagarriren bat detektatzen duzunean, egiaztatu informazio fidagarriren batetik datorrela, informazio hori partekatu edo horretan sinetsi aurretik. Era berean, oso baliagarria da informazioa hainbat iturri ezagunekin alderatzea.
3. **Komunikabide fidagarriak kontsultatzea:** estandar etikoekin eta informazioaren egiaztapen zorrotzarekin bat egiten duten kalitatezko kazetaritzara eta komunikabide fidagarrietara jo.
4. **Informazio-aniztasuna:** askotariko iritziak eta ikuspegiak azaltzea sustatzen du, eta horrek ikuspegi propioa eraikitzen lagunduko dizu.
5. **Pentsamendu kritikoa:** informazioaren aurrean pentsamendu kritikoa eta eszeptizismo osasungarria sustatzen ditu beti. Animatu zaitez zalantzan jartzera, ikertzera eta aztertzerara, edozein baieztapen egiazkotzat onartu aurretik.
6. **Desmuntatu teoria hauek:** teoria hauek desmuntatzeko, informazio enpirikoa eta egiaztagarria erabil dezakezu, desinformazioa sortzeko erabiltzen diren teknikak edo funtsik ezak azaldu, datuak egiaztatzeko webguneetarako estekak eman, etab.
7. **Ez azkar ibili:** iritzi bat eman baino lehen, hausnartzeko denbora hartu eta ikuspegi eta argudio desberdinak hartu kontuan ikuspuntu bat adierazi aurretik.
8. **Alfabetatze mediatikoa:** alfabetatze mediatikoan eta digitalean hezteko gero eta garrantzi handiagoa duen tresna da informazio egiazkoa eta faltsua bereizten laguntzeko, hedabideek eta sare sozialek nola funtzionatzen duten ulertuta.
9. **Sare sozialen erabilera arduratsua egin:** sare sozialen erabilera arduratsua sustatu, partekatu aurretik egiaztapenera animatuz eta zalantza edo egiaztatu gabeko informazioa zabaltzea saihestuz.
10. **Kontzientzia sortu:** informazioa zabaltzeko erantzukizun pertsonalari buruzko kontzientzia sortzen lagun dezakezu. Informazio faltsua edo egiaztatu gabeko partekatzearen eraginari buruz hausnartzera animatzen ditu pertsonak. Konspirazioak sortu eta hedatzeari buruzko kontzientzia, haien desartikulazioa errazteko eta horiek sustatzen dituzten mugimenduak/ideologiak ahultzeko.

## 6. Amaitzeko

2030 Agendak eta Garapen Jasangarrirako Helburuek aldaketa eta eraldaketarako ibilbide-orri bat ezartzen dute, gero eta desberdintasun handiagoa eta narriadura ekologiko larria dituen mundu honetan premiazkoak direnak. Orain arte erronka konplexuen artean nabigatu dugu, eta 2030 Agendaren ulermen kolektiboa mehatxatzen duten desinformazio-estrategiak argitu ditugu. Ikusi dugunez, gorroto-diskurtsoek edo 2030 Agendaren kontrakoek eragin nabarmena izan dezakete gizarte-kohesioan, bizikidetzaren baketsuan eta gizarte bidezakoago eta jasangarriago baterantz aurrera egitean, eta, beraz, badakigu orain garrantzitsua dela diskurtso horiek agerian uztea.

Narratiba suntsitzailerik horiei aurre egiteko eta etorkizun inklusiboagoa eta jasangarriagoa eraikitzeke erronka dugu orain. Gazteen parte-hartze aktiboa funtsezkoa da horretarako. Beraz, garrantzitsua da ondo informatuta egotea, errespetuzko elkarriketa sustatzea, askotariko iritzia entzutea, sare sozialak arduraz erabiltzea eta konponbide eraikitzaileekin konpromisoa hartzea, gizarte gisa ditugun erronkei aurre egiteko. Desinformazioaren aurkako borroka, gainera, buru kritikoa indartzeko eta egia indartzeko aukera bat da.

## 7. Bibliografía

- “Así defiende Vox que tras la Agenda 2030 hay fuerzas oscuras: “Son prejuicios ideológicos que les funcionan”. La Sexta, 2023.

[https://www.lasexta.com/programas/sexta-columna/asi-defiende-vox-que-agenda-2030-hay-fuerzas-oscuras-son-prejuicios-ideologicos-que-les-funcionan\\_20230922650df-9d398383a000195b982.html](https://www.lasexta.com/programas/sexta-columna/asi-defiende-vox-que-agenda-2030-hay-fuerzas-oscuras-son-prejuicios-ideologicos-que-les-funcionan_20230922650df-9d398383a000195b982.html)

- Blanco, Patricia. “From banning meat to indoctrinating children: These are some of the conspiracies about the UN Sustainable Development Goals”. El País English, September 19, 2023.

<https://english.elpais.com/international/2023-09-19/from-banning-meat-to-indoctrinating-children-these-are-some-of-the-conspiracies-about-the-un-sustainable-development-goals.html>

- Farinelli, Francesco. n.d. “Conspiracy theories and right-wing extremism – Insights and recommendations for P/CVE.” Language selection | Migration and Home Affairs. Accessed November 7, 2023.

[https://home-affairs.ec.europa.eu/system/files/2021-04/iran\\_conspiracy\\_theories\\_and\\_right-wing\\_2021\\_en.pdf](https://home-affairs.ec.europa.eu/system/files/2021-04/iran_conspiracy_theories_and_right-wing_2021_en.pdf)

- Franchini, Matías, and Ana C. Evangelista. 2022. “La gobernanza ambiental global tras el Acuerdo de París y los ODS: crisis ambiental, pandemia y conflicto geopolítico sistémico”. *Revistas U Rosario* 34 (1): 1-28.

- Hernández E., eta Rico, G. “Affective polarization and de salience of elections”. *Electoral Studies*, 69. February 2021.

- Aberg, Samuel. “Desinformar sobre la ONU, una estrategia política para captar la atención”. *Swissinfo*. 2022ko irailaren 19a.

<https://www.swissinfo.ch/spa/afp/desinformar-sobre-la-onu-una-estrategia-pol%C3%ADtica-para-captar-la-atenci%C3%B3n/47912932>

- Kroll, Christian. “Sustainable Development and Populism”. *Science Direct* 176. October 2020.

<https://www.sciencedirect.com/science/article/pii/S0921800919316982>

- “Los ataques a la Agenda 2030: ¿un obstáculo para el futuro sostenible?”. *Red Sostenible*. 2023.

<https://www.redsostenible.com/2023/09/los-ataques-a-la-agenda-2030-un-obstaculo-para-el-futuro-sostenible/>

- Lupak. “Polarizazioa. Demokraziaren haustura?”. 1. koaderno. 2023ko azaroa.

[http://lupak.org/wp-content/uploads/2023/12/SINN23\\_Lupak\\_Cuaderno\\_I\\_DEF\\_EU.pdf](http://lupak.org/wp-content/uploads/2023/12/SINN23_Lupak_Cuaderno_I_DEF_EU.pdf)

- Lupak. “Jarduera politikoari buruzko ikerketa”. 2023.

<http://lupak.org/eu/jarduera-politikoari-buruzko-ikerketa>

- Martínez, Miguel Á., Ángel Arellano, Miguel Pastorino, Isaac Nahón y Manfred Steffen. “¿Cómo nos manipulan las teorías conspirativas?”. *Diálogo Político*, 2021ko otsailaren 22a.

<https://dialogopolitico.org/debates/como-nos-manipulan-las-teorias-conspirativas-2/>

- Mikhaeil, Christine A. "Conspiracy theories: how social media can help them spread and even spark violence." The Conversation. August 1, 2023.  
<https://theconversation.com/conspiracy-theories-how-social-media-can-help-them-spread-and-even-spark-violence-209413>
- Miller, L. "Polarizados: La política que nos divide". Bilbao: Deusto Argitaletxea. 2023.
- Neubauer, Adrián, y Méndez-Núñez, Ángel. 2022. "Horizontes Educativos ante el Auge de la Nueva Extrema Derecha" en Europa: Un Análisis Documental." Arizona State University. Archivos analíticos de políticas educativas.  
<https://epaa.asu.edu/index.php/epaa/article/view/5486/2782>
- Gazteen Euskal Behatokia. "Gazteak eta Garapen Jasangarrirako Helburuen 2030 Agenda. Euskadiko gazteen ezagutza eta iritziak". 2023.  
[https://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovj\\_tendencias\\_juventud/eu\\_liburuak/adjuntos/ODS\\_2023\\_eus.pdf](https://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovj_tendencias_juventud/eu_liburuak/adjuntos/ODS_2023_eus.pdf)
- PNUD. "Informe sobre Desarrollo Humano 2021-22. Tiempos inciertos, vidas inestables: Configurar nuestro futuro en un mundo en transformación". New York: Nazio Batuen Garapenerako Programa. 2022.  
<https://hdr.undp.org/system/files/documents/global-report-document/hdr2021-22overviewspdf.pdf>
- Sanahuja, José A. "Posglobalización y ascenso de la extrema derecha: crisis de hegemonía y riesgos sistémicos." Instituto Complutense de Estudios Internacionales, n.d. 2017.  
<https://www.fundacioncarolina.es/wp-content/uploads/2018/11/Anuario-17-crisis-globalizacio%CC%81n.pdf>
- Sustainable Development Goals." n.d. United Nations Development Programme. Accessed November 2, 2023.  
<https://www.undp.org/es/sustainable-development-goals>
- NBE, Batzar Nagusia, "Transformar nuestro mundo: la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible", 70/1 ebazpena, 2015ko irailaren 25a.  
[https://unctad.org/system/files/official-document/ares70d1\\_es.pdf](https://unctad.org/system/files/official-document/ares70d1_es.pdf)
- UNESCO. "Directrices para la gobernanza de las plataformas digitales: salvaguardar la libertad de expresión y el acceso a la información con un enfoque de múltiples partes interesadas". 2023.  
<https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000387360/PDF/387360spa.pdf.multi>

